



ZESTOAKO UDALA



Zestoan Euskara Sustatzeko Ekintza Plana

2023ko ekintza plana



ZESTOAKO UDALA



Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Aholku batzordeak diseinatutako plana da ESEP. Zestoan 2014tik dugu martxan. Hau, hortaz, bigarren plan estrategikoaren azken urtea da.

## **ESEPen helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea eta indartzea da.**

Hori lortzeko:

- Gizarteari bere osotasunean dagokio euskara erabiltzeko aukerak eta guneak bermatu, zaindu eta sustatzea
- Herri administrazioei, horretaz gain, badagokie bermatzea Euskal Herriko herritar guztiak hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko duten eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz

## **ESEPen helburu estrategikoak eta zehar lerroak**

### **Helburu estrategikoak**

Euskararen jabeakuntza

1. Familia bidezko transmisioa
2. Irakaskuntza
3. Euskalduntze-alfabetatzea

Euskararen erabilera

4. Administrazioa
5. Gune geografiko euskaldunenak
6. Arlo sozio-ekonomikoa
7. Aisia eta kirola

Euskararen elikadura

8. Liburugintza
9. Kulturgintza
10. Publizitatea
11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea
12. Hedabideak
13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

### **Helburuak lortzeko zehar-lerroak**

Euskararen aldeko motibazioa

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

Euskararen zabalkundea

15. Barruko proiektzioa
16. Kanpoko proiektzioa

[Kulturartekotasuna](#)



## Euskararen Erabilera eragiteko foroa

Zestoako Udalak deialdi zabala egin zuen 2020ko otsailean. Zestoako Herri Ikastetxeak, Danbolinzulo Kultur Elkartek, 'Ikasjolas' proiektuan ibilitakoak, Ekain Guraso Elkartek, eta norbanako batzuek erantzun zuten. Herrian erabilera sustatzeko Foroa sortu genuen, ikuspegi iraunkor batekin, egoera iraultzeko gogoz.

Lehenengo bilera horretatik Foroak lantzeko bi ardatz zehaztu zituen:

1. Euskararen erabilera jaitziera, familia euskaldunetako haur batzuegan
2. 'Kanpotik etorritakoen' eta 'bertakoen' arteko haustura soziala, bi mundu paraleloren pertzepzioa

Foroaren dinamikak --eta lehengoari nola heldu ez jakiteak-- eraman gaitu bigarrean zentratzera. Gure hausnarketak laburtuz:

- a. Eskolaz kanpo eskaintzan 'bertakoek' parte-hartze handia dute. 'Kanpotik etorritakoen', aldiz, oso txikia. (Eskola kirola, kirol taldeak, Bar-bantxo, Gaztelekua, Interpretazio eskola, Musika Eskola, dantza taldea, Bertso eskola)
- b. Eskola komunitatean, ikasleen gurasoekin, beste horrenbeste: Guraso elkarteak, Eskolako bilerak...
- c. Komunikatzeko hizkuntza arazoak / Komunikazio arazoak ustezko "bi 'komunitateen'" artean.
- d. Kontziente gara aurreiritziak, ezjakintasun handia dugula eta premia dugula gure burua janzteko.

Horietaz gain, Zestoako datu soziolinguistikoko batzuk bildu ditugu, euskararen egoera zein den hobeto jakiteko. Hausnarketa horietan bileraz bilera kateatuta egon ondoren, ekintzetara pasatzea erabaki genuen. "Zestoan aniztasuna, euskararen erabilera eta parte hartzea sustatzeko proiektua" zehazten duen txostena erantsi da. Txosten honetan, horri lotutako ekintzak [urdinez nabarmenduta](#) datoz.

2021-2022 ikasturtean Euskara Foroa HUHEZIrekin elkarlanean 'Euskara eta kulturartekotasuna Herri Ikastetxean' proiektua diseinatzen hasi zen. 2022-2023 jarri da martxan.

Proiektuak bi helburu nagusi ditu, maila berekoak eta aldi berean lantzekoak:

- Euskararen erabilera areagotzea eta, orokorrean euskara sustatzea
- Herritar guztien arteko komunikazioa sustatu eta bermatzea

Proiektuan adostutako jarraibide batzuk --'formatuak'-- eskolaz kanpoko eremu batzuetan ere hasi gara aplikatzen.

Proiektua abiatu eta berehala jabetu ginen, kulturartekotasuna benetan lantzeko diskriminazioaren kontrako lanari ere ekin behar geniola.

Eta, horretan ere, ari gara lanean.

2023 urtean, herri administraziora zabaltzeaz gain, ESEP plangintzara ere zabaldu nahi dugu ikasitakoa: irizpideak, formatuak, tresnak. Kasu horretan bereziki kontuan hartu behar dira

3. helburu eta irizpidea: Kulturartekotasuna bera, herritar guztien arteko harremanak eta parte hartzea sustatzea
4. irizpidea eta erronka: herritar orori zuzendutako egitasmoak proposatzea, gizarte zatikatzeko ekidinez (bertako-kanpoko, zestoar-atzeritar, euskaldun-erdaldun...). Ekintzak birdiseinatu, herritar guztiengana iritsi ahal izateko.



## Euskararen jabetzua edo euskara eskuratze-prozesua

Hizkuntzaren geroratzea gainerako helburu estrategiko guztien oinarrian dago. Orain arte, familia transmisioa izan da horren bermea. Herriko egoera soziolinguistikoa erabat aldatu da. Egun 2-3 urtez azpiko haurren erdiak bakarrik du euskara etxeko hizkuntza. Horregatik transmisioaren ardura familiarik gizartera zabaldu behar dugu. Herri osoaren ardura izan dadila.

### 1- Familia bidezko transmisioa


Zestoan euskara bizi eta osasuntsu bada, familia bidezko transmisioari esker izan da. Eta horrela izaten jarraitzea nahi dugu. Nola transmititu dezake euskara, euskara ez dagoen familiak?

Neurriak:

- Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea
- Transmisioaren gaineko informazioa jaso eta baloratu
- Familia barruan euskararen erabilera sustatzea

Martxan dauden neurriak eta ekintzak	
1.1	Guraso berriei zuzendutakoak: Kotxeentzako pegatinak
1.2	'Zer entzun, hura esan. Hizkuntza ohiturak etxetik hasten dira' irrati tartearak
1.3	Hazi Hezi aldizkariaren harpidetzak
1.4	<a href="#">HH2 matrikulatzen diren haurren gurasoei zuzendutako saioak: etxeko hizkuntzaren garrantzia, eta norberak egin dezakeen ekarpena</a>
1.5	2023-2024 ikasturteko matrikula datuen jarraipena egitea

Erronkak	
1.6	Euskararen transmisioaren ardura, familia eremutik gizarte osora zabaltzea. Tresna, jarraibide erabilgarri eskaintzea.
1.7	<a href="#">Gurasoei zuzendu beharreko diskurtso inklusiboa sortzea. Balioan jartzea familia erdaldunek euskararen alde egiten duten ekarpena.</a>
1.8	Etxeko hizkuntzen jarraipena



## 2- Irakaskuntza

Gero eta indar gehiago hartzen ari den irakaskuntza eredu hirueleduna. Bestaldetik, handituz doa euskara etxeko hizkuntza ez duten ikasleen kopurua. Hortaz, eskolak ahalegin berezia egin behar du ikasle guzti-guztiek euskara behar besteko maila eta sendotasunez irakasteko.

Neurriak:

- Euskarazko ikasketen eskaintza sendotzea, ikasketa arautuetan zein ez-arautuetan, eta maila eta adin guztietan.
- 'Arnasgune' gaiaren lanketa eskolek hezkuntza proiektuan txertatzea

Martxan dauden neurriak eta ekintzak	
2.1	Euskara ikasteko dirulaguntzak
2.2	Euskarazko ikastaroak egiteko dirulaguntzak (UEU, EHU...)
2.3	Herriko eskolek Erabilera Sustatzeko Foroan parte hartzea
2.4	Gu ere bertotan proiektua
2.5	Balioen lanketa eskola kirolean: Euskararen erabileraren neurketa
2.6	<a href="#">IKASLeKUA, etxeko lanak eta gauza berriak ikasteko LeKUA</a>
2.7	<a href="#">Kulturarteko harremanak garatzen jarraitzea</a>
2.8	<a href="#">Guraso elkartearekin elkarlanean aritzeko aukera sortzea eta harremanak sendotzea</a>

Erronkak	
2.9	<a href="#">'Hedatu': 'Arnasguneak' gaia lantzeko hezkuntza proiektua</a>
2.10	<a href="#">Pantaila txikien gaineko hausnarketa sustatzea</a>



ZESTOAKO UDALA



### 3- Euskalduntzea eta alfabetatzea

Zestoako Udalak herritar orori bermatu nahi dio euskara ikasteko aukera.

Neurriak:

- Euskara ikastea doan izatea
- Herriko euskaltegia sendotzea eta herriko beste erakundeekin saretzea
- Hiztun zahar eta berrien arteko zubiak eraikitzea, harreman hizkuntza euskara izan dadin

Martxan dauden neurriak eta ekintzak	
3.1	Euskaltegia. Doakotasuna.
3.2	Mintzalagun programa
3.3	Euskaltegiaren atala <i>danbolin</i> aldizkarian

Erronkak	
3.4	Euskaltegia herriko erakunde gisa sendotzea <ul style="list-style-type: none"> <li>• Presentzia: herritar orok jakitea zer den, non dagoen eta zer egiten duen</li> <li>• Euskalgintzako taldeekiko harremanak eta elkarlanak sendotu eta areagotzea</li> </ul>
3.5	Hizkuntza ofizialak ezagutzen ez dituztenen herritar berrientzat euskara izatea harreman hizkuntza, hizkuntza komuna



## Euskararen erabilera

Erabiliz zorrozten den tresna da hizkuntza. Erabiltzen ez bada, herdoildu ez ezik kamustu ere egiten baita. Horregatik zaindu behar dira ondo, hizkuntzaren ikuspegitik betiere, familiaren eta eskolaren luzapen eta ingurune diren jardunbide guztiak: kultura, aisia, kirola, teknologia berriak, lan mundua, administrazioa, merkataritza, hedabideak eta bestelako zerbitzu eta jarduerak. Etorkizuneko erronka nagusia euskaldun guztientzat, bereziki belaunaldi berrietako euskaldunentzat, euskara heldu-aroko erabilera eremu berezi eta garrantzizkoetarako erakargarri eta beste edozein hizkuntza bezain baliozko egitean datza, esaterako, bai kultura produktuen kontsumorako, bai eta funtzio sinboliko eta afektiboetarako ere, hala nola familiako harremanetarako, lagunarterako edo gizarte bizitzarako.

## 4- Administrazioa

Euskara erabiltzea herritarraren eskubidea denez, administrazioarentzat betebeharra da.

Neurriak:

- Herritar guztien eta bakoitzaren hizkuntza eskubideak gauzatu ahal direla bermatzea
- Udal administrazioaren Erabilera Plana
- Udalez gaindiko administrazioetan ere herritarrek euskaraz jardun ahal izatea

Martxan dauden neurriak eta ekintzak	
4.1	Udal administrazioaren Erabilera Plana (aparteko txostenean zehaztuko dena)
4.2	HIJA (Hizkuntza Irizpideen Jarraipena) espedienteak
4.3	Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina
4.4	HAPOren ELE txostena eta jarraipena
4.5	Udal jabetzako tabernen ustiaketa lehiaketetako hizkuntza irizpideetan eleaniztasuna kontuan hartzea

Erronkak	
4.6	179/2019 Dekretua bere osoan aplikatzeko plana/protokoloa garatzea
4.7	ELE (Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa) dagokion guztietan txertatzea
4.8	Telefonozko baliabideak, itzultzaile automatikoak... erabiltzea, euskarari eusten erdaldunekin komunikatu ahal izateko.



ZESTOAKO UDALA



## 5- Gune euskaldunenak

Euskarak, eremu urriko hizkuntza guztiek bezala, arnasmuneak behar ditu. Gune euskaldunenak euskararen birrikak dira eta Zestoa horietako bat. Hortaz, esparru guztietako neurri orok du arnasmunearen zaintza eta lanketa helburu.

Neurriak:

- Zestoako Udalak UEMAn parte hartze aktiboa izatea
- Euskara Zestoaren nortasun ezaugarria dela onartu eta zabaltzea
- Arnasmunearen 'bizi-indarra' zaindu eta areagotzea
- Arnasmune izaerari eutsita, nortasun pluralei aukera zabaltzea

Martxan dauden neurriak eta ekintzak	
5.1	UEMAko lantaldeetan eta Deiadarka teknikarien foroan parte hartzea
5.2	HIJA (Hizkuntza Irizpideen Jarraipena) espedienteak
5.3	Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina
5.4	Euskal prentsaren txokoak
5.5	Banketxeekiko hitzarmenen jarraipena eta berritzea

Erronkak	
5.6	ELE (Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa) dagokion guztietan txertatzea
5.7	Bizilagun berrientzako harrera plana, arnasmune izatearen garrantzia azalduko duena
5.8	Ekainberri eta Turismo bulegoan hizkuntza irizpideen jarraipena egitea.





## 6- Arlo sozio-ekonomikoa

Enpresen eguneroko lanean euskara erabiltzea bezain garrantzitsua da (edo garrantzitsuagoa) bezeroekiko harremanetan euskara erabiltzeko aukera bermatu eta sustatzea, kontsumitzaileek euskaraz jarduteko duten eskubidea aintzat hartuz. Hortaz, esparru guztietako neurri orok du arnagunearen zaintza eta lanketa helburu.

Neurriak:

- Enpresen jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzeko pausuak ematea
- Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak hartzea
- Euskarari prestigio ematea garapen sozio-ekonomikorako giltzarri gisa.

Martxan dauden neurriak eta ekintzak	
6.1	UEMArekin batera merkataritza kanpaina
6.2	HIIA (Hizkuntza Irizpideen Jarraipena) espedienteak
6.3	Herriko enpresa eta establezimenduei laguntza teknikoa (zuzenketak, itzulpenak) eta materiala (euskarriak, idatziak, kartelak...)
6.4	Profesional euskaldunen gida (UEMA)
6.5	Udal jabetzako tabernen ustiaketa esleipendunekin batera 'hizkuntzen kudeaketarako plana' landu eta adostea

Erronkak	
6.6	Udalaren hornitzaileei zuzendutako kanpaina
6.7	Merkataritza txikia berrindartzeko plana eta bertan euskara baliabidetzat hartzea
6.8	Euskal musika herriko festetan (tabernetan eta barraketan) sustatzeko kanpaina
6.9	Bertatik bertara kanpainen parte hartzea
6.10	'Zestoako haurrei euskaraz' kanpaina garatzea

## 7- Aisia eta kirola

Garrantzizkoa da eskolaz kanpoko jardueretan –eta bereziki haur eta gazteei zuzentzen zaizkienetan– euskara erabiltzeko aukera zabalak eskaintzea, kirol federazio eta bestelako elkarteekiko lankidetzaren bitartez. Gauzak euskaraz egiteko aukerak sendotu eta hedatu behar dira. Kirola eta aisialdi-jardueretan, jendaurreko ekitaldi eta agerpenak antolatzen direnean, ahoz zein idatziz ematen diren mezuetan.

Neurriak:

- Begiraleen prestakuntza sendotzea
- Kirol eta aisialdiko ekimenetan erabiltzen den euskararen kalitatea zaintzea
- Kirol eta aisialdiko ekimenetan etorri berrien hizkuntza integrazioa ziurtatzea

Martxan dauden neurriak eta ekintzak	
7.1	Bertso eskolak eta bertsogintza
7.2	Salto! Gazteen topaketa
7.3	Kirolean euskara erabileraren neurketa (udal<>ekin)
7.4	<a href="#">Udaleku irekietako eta kirol udalekuetako begirale eta koordinatzaileei zuzendutako formazioa: Kulturartekotasuna eta ZAS!</a>
7.5	<a href="#">‘Gure seme-alabentzat dira’ Haur etorri berriak aisialdiko eskaintzaz baliatzea bultzatzeko kanpaina</a>
7.6	‘Euskaraz gozatu nahi dut’, Euskarazko Produktuen katalogoa ezagutzeko kanpaina. (Jolasak eta filmak)
7.7	Haur eta gazteentzako euskarazko film eskaintza zabaltzea: ePELLan /Zinuema
7.8	Kontaidazu ipuin bat
7.9	Udalekuetako begiraleei prestakuntza:

Erronkak	
7.10	<a href="#">3-5 urteko haur eta gurasoei zuzendutako jolas saioak</a>



Euskararen erabilerak bi arlo nagusi ditu: bata sorkuntza eta bestea kontsumoa. Beraz, lehenik eta behin, euskarazko kalitatezko sorkuntza sustatu eta babestu behar da eta, horrekin batera, euskarazko kontsumoa indartu behar da

## 8- Liburugintza

Irakurzaletasuna sustatuko da arreta berezia jarriz irakurzaletasun errotu daitekeen lehenengo garaian, hau da, irakurtzen hasten diren haur eta gazteengan.

Neurriak:

- Irakurzaletasuna bultzatzea

Martxan dauden neurriak eta ekintzak	
8.1	'Euskaraz gozatu nahi dut', Euskarazko Produktuen katalogoa ezagutzeko kanpaina. (Haur eta Gazte Literatura)
8.2	Nire Uztapide liburuaren berrargitalpena

Erronkak	
8.3	Euskal literaturaren kontsumoa sustatzea



## 9- Kulturgintza

Euskara erabiltzeko aukerak areagotu behar dira, familia euskaldunei, gazteei eta haurrei lehentasuna emanez. Funtsezkoa da, halaber, euskaraz ez dakitenei euskarazko ekoizpenaren berri jakinaraztea, ahal den neurrian, arrotz egin ez dakien eta oraindik indarra duten zenbait aurreiritzi gainditu daitezten.

Neurriak:

- Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea
- Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea

Martxan dauden neurriak eta ekintzak	
9.1	Herriko euskarazko kultur eskaintzaren berri ematea <sup>1</sup>
9.2	Herriko kultur eragileen jardueren berri ematea

Erronkak	
9.3	Kulturgintza eta herrigintzako elkarteen indartzea eta jarraipena bultzatzea
9.4	Erdaldunak euskal kultura produktuen hartzaile/parte hartzaile bihurtzea
9.5	Euskal kultur produktuei prestigioa ematea
9.6	Euskarazko kultur eskaintzaren berri ematea

1 Udalaren webgunean eta sare sozialetan Udalaren eta udalerriari dagozkien berriak besterik ez zabaltzea erabaki du Udalak.



## 10- Publizitatea

Euskarazko publizitate gehiago behar dugu. Kalitatezkoa, erakargarria eta batez ere, euskaraz sortua. Zestoako Udala euskarazko publizitatea bultzatuko du eta eredu izan nahi du herrian. Era berean, herriko eragileei erakutsiz euskaraz izateak mezua hurbilagoa, erakargarriagoa eta zuzenagoa dela.

Neurriak:

- Herri administrazioaren publizitatea euskaraz sortu eta argitaratzea
- Herriko eragileei laguntza teknikoa ematea publizitatea euskaraz egin dezaten.

Martxan dauden neurriak eta ekintzak	
10.1	Ezinbestekoa ez den guztietan, Udalaren publizitatea euskaraz eta euskal komunikabideetan egitea
10.2	Herriko eragileei laguntza teknikoa publizitatea sortzeko
10.3	Herriko Kultur eskaintzaren publizitatea egiteko plana/ataria...

Erronkak	
10.4	Ekainberrik eta Zestoako Turismo bulegoak publizitaterako irizpideetan euskara eta euskararen kalitatea txertatzea



ZESTOAKO UDALA



## 11- Corpus plangintza eta euskararen kalitatea

Helburu nagusietako bat da hizkuntza modu integralean garatzea, eta aldi berean, komunikagarritasuna lantzea. Izan ere, kalitatezko euskara lortu nahi bada, hizkuntza erregistro egokiak erabili behar dira unean uneko premiei erantzuteko. Beraz, hizkuntzaren zuzentasunaz gain, erraztasuna eta adierazgarritasuna landu behar dira (hau da, finean, komunikagarritasuna bera).

Neurriak:

- Toponimia zaindu eta zabaltzea
- Euskararen kalitatea zaintzea

Martxan dauden neurriak eta ekintzak	
11.1	Udalan, kalean... ikusten diren idatziak zuzendu eta hobetzeko proposamenak
11.2	Hurrengo toponimia ikerketarako edo berrikusketarako, zalantzazko kasuak bildu eta gorde

Erronkak	
11.3	<a href="#">Arroa izenen ofizialtasuna. 179/2019 Dekretua betez</a>



## 12- Hedabideak

Hedabideak sektore estrategikotzat jo izan dira beti hizkuntzaren normalizazioaren bidean. Haien ekarpena ezinbestekoa da hizkuntzaren erabilera indartzeko eta aldi berean hizkuntza horretan gauzatzen diren kultura jarduerak proiektatzeko.

Neurriak:

- Herriko komunikabideak sustatzea
- Euskararen kalitatea zaintzea

Martxan dauden neurriak eta ekintzak	
12.1	Danbolinzulo elkartearekin hitzarmena
12.2	Irria aldizkariaren harpidetzak

Erronkak	
12.3	Berria, Argia, Irria... zabaltzeko kanpaina

### 13- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT)

Gero eta tresna teknologiko gehiago dago euskaraz, eta euskal blogosfera nahiko aktiboa da. Sare sozialetan ere (Facebook, Twitter...) sartzen ari da euskara pixkanaka.

Neurriak:

- Euskarazko baliabide teknologikoen gaineko informazioa zabaltzea
- Euskararen kalitatea zaintzea

Martxan dauden neurriak eta ekintzak	
13.1	Haur eta gazteen pantailen kontsumoa aztertu eta helburu estrategikoak zehaztu
13.2	<a href="#">Telefonozko eta internet bidezko hizkuntza tresnak ezagutaraztea</a>

Erronkak	
13.3	Euskarazko baliabide teknologikoen gaineko informazioa zabaltzea
13.4	Euskarazko baliabide teknologikoen katalogoa zestoan.eus-en txertatzea





## Helburuak lortzeko zehar-lerroak

Helburu estrategikotzat jo diren jabetuntza, erabilera eta elikaduraren ondoan badira haien elikatzen dituzten beste jardueren mota batzuk ere, hizkuntza plangintza integral batek kontuan izan behar dituenak.

### 14- Euskararen aldeko motibazioa

Erabileraren ikuspegitik, motibazioaren eremuan sartzen dira euskara erabiltzeko argudioak ematea, hizkuntzen erabileran gertatzen diren egoerak kudeatzeko estrategiak eskaintzea, hizkuntza kudeaketan garatzen diren eredu onak zabaltzea, hizkuntza jakitetik erabiltzera dagoen jauzia egiten laguntzeko lantegiak antolatzea edota hizkuntzaren normalizazioaren esparruan lidergoa lantzea.

Neurriak:

- Euskara nortasun adierazle gisa ikustea
- Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzea

Martxan dauden neurriak eta ekintzak	
14.1	Euskaltegiaren atala danbolin aldizkarian
14.2	<a href="#">Euskararen Erabilera sustatzeko foroa - Foroaren bloga</a>
14.3	Euskararen aldeko ekintzen urteko egitaraua osatzea
14.4	<a href="#">'Usteak erdia ustel' bloga</a>

Erronkak	
14.5	<a href="#">Kulturartekotasunaren aldeko diskurtsoa zabaltzea</a>



## 15- Euskararen proiektzioa

Hizkuntzaren irudian eta kultur ekoizpenen prestigioan berebiziko eragina du zabalkundeak. Euskara 21 gogoeta prozesutik ateratako ondorioen artean bik gutxienez lotura dute euskararen eta euskal kulturaren irudiarekin. Alde batetik, beharrezkotzat ematen da euskararen erakargarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea, euskarak mundu ugari baititu bere baitan eta aniztasun hori islatu behar delako. Bestetik, oso komenigarritzat jotzen da euskararen irudiari prestigioa ematea, kultura eta komunikazioaren alorreko lorpenak garbi proiektatuz eta euskal gizartearen kohesiorako osagai ezinbestekoa dela praktikan eta diskurtso publikoan adieraziz.

Neurriak:

- Euskararen irudi positiboa lantzea
- Elebitasun pasiboen kopurua handitzea erdaldunen artean, eta haien arreta erakartzea

Martxan dauden neurriak eta ekintzak	
15.1	Herri Urrats eta Nafarroa Oinez festei dirulaguntzak
15.2	Kontseiluari eta Behatokiari dirulaguntzak

Erronkak	
15.3	Euskaraz sortu eta euskaraz besterik ez dauden produktu eta edukien berri ematea (Txikipedia, adib.).
15.4	Beste udal euskaldunen berri eman eta beraien praktika onak zabaltzea